



Irakasleen eskuliburua

EAEko irakaskuntza publikoa

2024-2025

(2024ko urrian eguneratua*)

* Kontuan hartu lan-baldintzetan
aldaketak egon daitezkeela



www.steilas.eus



Irakasleen eskuliburua

EAEko irakaskuntza publikoa
2024-2025 (2024ko urrian eguneratua*)

* Kontuan hartu lan-baldintzetan
aldaketak egon daitezkeela

Aurkibidea

- 3** Jardunaldi mota desberdinen ordu-banaketa
- 4** Ordu-banaketa Lanbide Heziketako ordezkapenetan
- 6** Baimenak eta lizentziak
- 8** Senideen gaixotasun larri edo heriotzagatiko lizentzia
- 9** Gurasotasun-lizentzia
- 10** Eszedentziak eta Zerbitzu bereziak
- 10** Odol-ahaidetasunaren organigrama
- 11** Eszedentzia eta zerbitzuak aldi baterako etetea (umeak zaintzeko)
- 11** Guraso-baimena (8 astekoa)
- 12** Gurasotasun-lizentzia eta gero, zer?
- 14** Haurdunaldia
- 14** Erditzeko unea
- 15** Ordezkoen hurrenkera nola ulertu (Ordezlagunean kontsultagai)
- 16** Lan-istripuak, nola jokatu
- 17** Lotura interesgarriak
- 18** Nominak: 2024

Jardunaldi mota desberdinen ordu banaketa

Haur eta Lehen Hezkuntza

| Lanaldi mota | Ordu kopurua guztira | Irakastorduak (atsedenak barne) | Osagarriak | Gutxienez astero joan beharreko egunak |
|--------------|----------------------|---------------------------------|------------|--|
| Osoa | 30 | 23 | 7 | 5 |
| Bost seiren | 25 | 20 | 5 | 5 |
| Bi heren | 20 | 15 | 5 | 5 |
| Erdia | 15 | 12 | 3 | 4 |
| Herena | 10 | 8 | 2 | 3* |

* Aurtengo ebazpenean ez da zehazten. Orain arte horrela jasotzen zen.

Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa

| Lanaldi mota | Ikastetxeari arreta zuzena | Ikastetxean gutxienez egon beharreko orduak | Zuzeneko irakaskuntza-orduak (zaintzak kanpo) | Osagarriak | Gutxienez astero joan beharreko egunak |
|--------------|----------------------------|---|---|------------|--|
| Osoa | 30 | 23 | 17-18 | 6-5 | 5 |
| Bost seiren | 25 | 19 | 14-15 | 5 | 5 |
| Bi heren | 20 | 15 | 11-12 | 4 | 4 |
| Erdia | 15 | 11 | 8-9 | 3 | 3 |
| Herena | 10 | 8 | 6 | 2 | 2 |

Oharra: lanaldi mota guztietan berdin puntuatzen da.

HEDATZE: berrantolatze horrek ez ditu irakasleen lan-baldintzak urratuko. Horrela, ikasleentzat proposaturiko irakas-jardueraren eta irakasteko ez den jardueraren berrantolatzea bermatu eta gauzatzeko, irakasleek eskolak ematea edota hezkuntza-indargarriak diren orduetatik (18 orduko muga gainditu gabe), edota asteen jarduera osagarrietarako 7 orduetatik gutxienez bat eskainiko dio astero HEDATZE proiektuaren barruan ikasleekin zuzenean jarduteari. Egoera hau irakasle bakoitzaren EEDn jasoko da.

Ordu-banaketa Lanbide Heziketako ordezkapenetan

Demagun, ikasturte hasierako esleipenean (IKHA/COCU) zein ordezkagunean, LHko Osasun eta Laguntza Prozedurak (1567) espezialitateko jardunaldi osoko lanpostu bat honela eskaintzen dela:

ASESE 7,6 ordu; OSLA 6 ordu; LELA 1,9 ordu; PLANES 1,9 ordu (GUZTIRA = 17,4 ordu).

Horietako modulu batzuk 2. mailakoak direnez –ASESE eta PLANES moduluak, hain zuzen ere– eta LHko 2. mailako ikasleak 3. hiru hilekoan enpresetara doazenez praktikak egitera, Lan Prestakuntza (FCT) modulua burutzeraz, ikasturtean 3 ebaluazioetan eman beharreko irakastordua lehen 2 ebaluazioetan metatzen dira. Ondorioz, irakaslearen jardunaldiak 17/18 ordu baino gehiago izango ditu lehen bi ebaluazio horietan.

Horrek guztiak LHko irakasle ordezkoen artean nahasmena sortzen du, ez baitakite zein den bete beharreko jardunaldia.

Kontuan izanik ikasturteak 33 aste dituela, adibide honen arabera, bi modulu horiek horrela banatuko ziren:

- ASESE: OCBren arabera, modulu honi 252 ordu dagozkie, beraz:

$252 \text{ ordu} / 33 \text{ aste (3 ebaluazio)} = 7,6 \text{ ordu (plaza perfilatzeko zenbatuko den ordu-kopurua)}$.

Ordu-kopuru hau 2 ebaluaziotan metatu behar denez, modulu honek astean izango duen lanordukopurua ondorengoa izango da:

$252 \text{ ordu} / 22 \text{ aste (2 ebaluazio)} = 11,45 \text{ ordu (borobilduz, 12 ordu)}$.

- PLANES: OCBren arabera, ordu modulu honi 63 ordu dagozkie, beraz:

$63 \text{ ordu} / 33 \text{ aste (3 ebaluazio)} = 1,9 \text{ ordu (plaza perfilatzeko zenbatuko den ordu-kopurua)}$.

Ordu-kopuru hau 2 ebaluaziotan metatu behar denez, modulu honek astean izango duen lanordukopurua ondorengoa izango da:

$63 \text{ ordu} / 22 \text{ aste (2 ebaluazio)} = 2,86 \text{ ordu (borobilduz, 3 ordu)}$.

2. mailako moduluen orduak nola banatzen diren behin jakinda, ikasturtea honela antolatzen da:

| Modulua | 1. hiru hilekoan | 2. hiru hilekoan | 3. hiru hilekoan |
|----------------|------------------|------------------|------------------|
| ASESE | 12 ordu | 12 ordu | 0 ordu |
| PLANES | 3 ordu | 3 ordu | 0 ordu |
| OSLA | 6 ordu | 6 ordu | 6 ordu |
| LELA | 2 ordu | 2 ordu | 2 ordu |
| Guztira | 23 ordu | 23 ordu | 8 ordu |

Plaza honen titularrak baja, lizentzia edo baimenen bat hartuz gero, haren ordezkia ikastetxera heltzen denean, zer egiten da? Ebaluazioaren arabera eta ordezkapenaren iraupenaren arabera, era ezberdinetan kudeatzen da:

1. Ordezkapenaren iraupena aurreikusten denean.

Demagun lanpostuaren titularrak 6 hileko ikasketa baimen bat hartu duela, Irale bat... Kasu horretan:

- Ordezkapena lehen edo/eta bigarren ebaluazioan gertatzen bada:

Lanpostu horrek astean 23 irakastordu izango ditu. Jardunaldi osoa 17/18 irakastordutakoa denez, ikastetxeak ordu gehigarri horiek kentzeko eskatu ez badu, ordezkioak eskatu beharko luke. LHn, moduluak zatitu ezin direnez, ondorengo bi aukerak suerta daitezke:

| | | | | |
|----------------------------------|----------------|----------------|----------------|------------------------------------|
| # 23 orduen banaketa = 17 + 6 | Modulua | A ordezkooak | Modulua | B ordezkooak |
| | ASESE | 12 ordu | OSLA | 6 ordu |
| | PLANES | 3 ordu | | |
| | LELA | 2 ordu | | |
| | Guztira | 17 ordu | Guztira | 6 ordu (jardunaren herena) |
| # 23 orduen banaketa = 18 + 5 | Modulua | A ordezkooak | Modulua | B ordezkooak |
| | ASESE | 12 ordu | PLANES | 3 ordu |
| | OSLA | 6 ordu | LELA | 2 ordu |
| | Guztira | 18 ordu | Guztira | 5 ordu (jardunaren herena*) |

Laburbilduz, lanpostu honen ordezkapena egiteko Hezkuntzak bi irakasle bidali behar ditu ikastetxera:

- Jardunaldi osoko irakaslea (17/18 irakastordu).
- Jardunaldi hereneko irakaslea (6/5 irakastordu).

■ Ordezkapena hirugarren ebaluazioan gertatzen bada:

2. mailako ikasleak praktikak egiten daudenez eta klase orduak murriztu direnez, ordezkooak 1. mailako moduluak besterik ez ditu izango eta, ondorioz, 8 irakastordu izango ditu, jardunaldiaren erdia izanik; eta kobratu ere horrela egingo du.

■ Ordezkapena hirugarren ebaluaziora ere luzatzen bada:

Jardunaldi herenean dagoen ordezkooari (B ordezkooa) kontratua etengo zaio eta jatorriz osoan zegoenari kontratua aldatuko zaio, jardunaldi murriztura pasatuz**.

2. Ordezkapenaren iraupena aurreikusten ez denean.

Kasu horretan, ordezkooak dituen irakastordu guztiak eman beharko ditu ordezkapenak irauten duen tartean.

Gure aurreko adibidean, demagun ordezkoo batek 23 irakastordu dituen ordezkapen bat burutzen duela 6 asteetan zehar.

Denbora horretan 6 ordu gehigarri ($23-17=6$) egin dituenek aste bakoitzean, guztira 36 ordu gehigarri egin ditu lan (6 ordu gehigarri asteko x 6 asteko lana). Orduan behin ordezkapena bukatu zaiola administrazioak bi asteko kontratu bat egingo dio ordezkoo horri, zeinetan lanik egin ez arren, kotizatu, puntuatu eta kobratu egingo duen. Behin aste hauek bukatuta, ordezkagunean parte hartu ahal izango du.

Kasuistika oso zabala izan daiteke, plazak astean 19, 20, 21, 22, 24 edo 25 ordu izan baitezake. Ikastetxetik aukera ezberdinak eskaini ahal dizkiote ordezkooari. Legez, modulu banaketaren onarpena, ikastetxeko Zuzendaritzak egin behar du.

Kasua edozein izanik ere, jakizu eskubidea duzula klaseak 18 ordura arte baino ez emateko (hala baitago araututa, ikasturte hasierako ebazpenean). 18 irakastorduz baino gehiago aritu bazara lanean, Hezkuntzan erreklamazioa jartzea gomendatzen dizugu, zure eskubidea baita.

Deitu **STEILAS**era, zure kasu partikularra aztertu eta orduak nola bana ditzakezun azalduko dizugu (betiere ikastetxeak aurreikusi eta gauzatu ez badu).

* Jardun herenari 6 irakastordu dagozkionez, 5 ordu horiek beste ordu batekin osatuko dira ikastetxean.

** Pertsona horrek kontratu-aldaketari uko egin ahal izango dio, baldin eta birbaremazioetan lanaldi osoetan SOILIK izena eman badu.

Baimenak eta lizentziak

Taulan azpimarratuta agertzen diren baimenek eta lizentziek, gutxienez 10 laneguneko aurreabisua exijitzen dute.

| Baimenak eta lizentziak | Art. | Nork | Iraunaldia | € | Eskaera |
|--|-----------|--------------------------|--|----------------------|------------------|
| Gaixotasuna edo istripua | 39 | KPBO | Medikuaren alta-agiria izan edo kontratua amaitu arte. | Bai | E |
| Gurasotasuna | 40 41* | KPBO | 18 aste. Beste 2 aste ume jaioberria ezgaitua bada edo erditze anizkoitza izan bada (bi aste gehiago seme-alaba bakoitzeko). Kontsultatu 11. orrialdea. | Bai | E |
| Adopzioa | 40.2 | KPBO | 18 aste. Beste 2 aste bigarren umeagatik edo ume jaioberria ezgaitua bada. Adopzioa nazioartekoa bada, bidaia egiteko, 2 hilabete arteko baimena. | Bai | E |
| Edoskitzea | 40.5** | KPBO | Egunero ordu bat, haurrak 12 hilabete izan arte. Orduak meta daitezke: 6 ordu = egun bat. Proporzionaliki luzatuko da erditzea multiplea denean. Kontsultatu 12. orrialdea. | Bai | E |
| <u>Ezkontza/Biketetza</u> | 42 | KPBO | 20 egun natural, ezkontza-eguna barne. 6 urtetan ezin da berriz eskatu. | Bai | E |
| <u>2. mailara arteko senideen ezkontza</u> | 42.3 | KPBO | Egun bat (+2 egun natural, 150 km baino urrunago ospatzen bada). | Bai | E |
| Senideen gaixotasun larria edo heriotza | 43*** | KPBO | 5/2023 Errege Lege Dekretuak 43. artikulua aldatzen du (8. orrian) | Bai | E |
| Senideen gaixotasunagatik jardunaldia murriztea | 44 | KPBO | 1. mailako senideak zaintzeko, baita urrunagoko mailakoak harekin biziz gero, lanaldia 1/2 bat edo 1/3 bat murriz daiteke, hilabete batez. | Bai | T |
| Nahitaezko betebeharrak | 45 | KPBO | Behar den denbora. | Bai | Z |
| <u>Etxebizitzaz aldatzea</u> | 46 | KPBO | Bi lanegun (errolatu eta 15 egun naturaleko epean). | Bai | E |
| Ordezkaritza sindikala edo langileena | 47 | KPBO | Legediaren arabera. | Bai | Z |
| Genero-indarkeriaren biktima | 48 | KPBO | Osasun- edota gizarte-zerbitzuek zehaztutakoaren arabera. | Bai | T |
| <u>Adingabeak, ezgaituak, edo 2. mailara arteko senideak zaintzea</u> | 49 | KPBO | Lanaldiaren herena edo erdiaren murrizketa, adingabeak 12 urte bete arte. | % | E |
| Minbizia edo gaixotasun grabea duten adingabeak zaintzeko baimena | 49.e | KPBO | 5/2015 Errege Dekretua. Gutxienez lanaldiaren 1/2 murriztu daiteke eta gaixoak 18 urte bete arte (kasu batzuetan 23 urte arte). | Bai | T |
| Gaixotasun kronikoak edo mugitzeko arazoak dituzten 2. mailara arteko senitartekoak zaintzea | 50 | KPB | Gehienez 2 ordu egunean, lanaldi hasieran edo bukaeran. 50 ordu ikasturteko, gehienez ere. | Bai | E |
| Lanpostuarekin erlazionaturiko ikasketak | 51 | K | Baimen kopurua mugatua. | Bai | T |
| <u>Beste ikasketa batzuk</u> | 52 | K | Luzatu ezin den ikasturte bat. | Ez | T |
| <u>Azterketak</u> | 53 | KPBO | Azterketaren eguna (2 egun, 150 km baino urrunago bada). | Bai | E |
| Administrazioaren barne-promoziorako probak | 54 | KP | Behar den denbora. | Bai | E |
| Medikuarenera joatea | 55 | KPBO | Behar den denbora. Erditzea prestatzeko, astero 4 ordu. | Bai | Z |
| Hitzaldi, kongresu eta abarretara joatea | 56 | KPB | Behar den denbora, 5 egun arte. | Bai | I |
| Hautapenezko karguaren betebeharrak | 57 | KPB | Urteko ordutegiaren % 10, gehienez ere. Lanaldiaren herena edo erdiaren murrizketa. | Bai Ez | E |
| <u>Norberaren eginkizunak</u> | 58 | KPB | Gehienez ere 4 hilabete, bi urtean behin (baldintza urte batez lanean egotea, etenik gabe). | Ez | E |
| <u>Ordaindu gabeko baimena</u> | 59 | K | Ikasturte osoa edo 6 hilabete (abuztua-urtarrila edo otsaila-uztaila), 5 urtean behin. | Ez | E |
| Urte sabatikoa | 60 | K | 5 urteko zikloak: lehen 4 ikasturteetan lan, eta bosgarrenean, sabatikoa. | % 84 | H |
| <u>Orduak murriztea</u> (Lan-hitzarmenean jasota, baimen edo lizentzietatik kanpo dago) | 61 | KPB KPB KPB KPB | a) 59 urtekoek astean 2 eskola-ordu gutxiago. (LHko kidegoa). b) 60 urtetik gorakoek lanaldiaren irakastorduen 1/3eko murrizketa. (baldin eta bestelako kargu edo ardurarik ez badute). c) Urte osoko jardunaren murrizketa, lanaldiaren 1/3 edo 1/2 (gutxienez 1 urte. Eten ondoren, berriz eskatzeko 3 urte igaro behar). d) Ikasketa ofizialak egiteko, lanaldiaren 1/3eko murrizketa. | Bai Bai % % | H H E E |

Zehaztasunak: 2010-VII-16ko EHAA (39-61 artikulua).

K: karrerakoek, P: praktiketakoek, B: bakantetunek, O: ordezkoek.

* Gurasotasuna 11. orrialdean zehazten da. ** Edoskitzea 12. orrialdean zehazten da. *** Gaixotasun larria edo heriotza 8. orrialdean zehazten da.

E: eizu, T: tramitagune, H: hezigunea, Z: zuzendaritza, I: ikuskaritza.

Senideen gaixotasun larri edo heriotzagarriko lizentzia

| Heriotza | | | |
|---|-----------------|--|---|
| Senide mota | Gertaera non | | |
| | Udalerri berean | Beste udalerri batean, 150 km baino gutxiagora | Beste udalerri batean, 150 km baino gehiagora |
| Ezkontidea Izatezko bikotekidea Seme-alabak | 5 lanegun | 5 lanegun | 5 lanegun + 2 egun natural |
| Gurasoak Aitagin-amaginarrebak Suhirrainak | 3 lanegun | 5 lanegun | 5 lanegun |
| 2. mailako senideak | 3 lanegun | 4 lanegun | 4 lanegun + 1 egun natural |
| Maila urrunagoko senideak, elkarrekin biziz gero | 3 lanegun | 3 lanegun | 3 lanegun + 2 egun natural |

| Gaixotasun larria, ospitaleratzea edo etxean atsedean hartzea behartzen duen ospitalizazio gabeko ebakuntza | | |
|---|--|---|
| Senide mota | Gertaera non | |
| | Udalerri berean zein beste udalerri batean | Beste udalerri batean, 150 km baino gehiagora |
| Ezkontidea Izatezko bikotekidea Bizikideak Seme-alabak | 5 lanegun | 5 lanegun + 2 egun natural |
| Gurasoak Aitagin-amaginarrebak Suhirrainak | 5 lanegun | 5 lanegun + 2 egun natural |
| 2. mailako senideak | 4 lanegun | 4 lanegun + 2 egun natural |
| Maila urrunagoko senideak, elkarrekin biziz gero | 5 lanegun | 5 lanegun + 2 egun natural |

Ebakuntza: medikuaren ziurtagiriarekin egiaztatu beharko da.

Etxean atsedean hartzea: ebakuntzaren mediku-ziurtagiria + atsedena justifikatzen duen medikuaren txostena. Heriotzaren kasuan kontuan izan, beste udalerri bat, langilearen bizilekua ez dena izango dela. Adibideak:
Langilea Araian bizi da eta gurasoa Gasteizen zendu da: 5 lanegun.
Langilea Gasteizen bizi da eta gurasoa Gasteizen zendu da: 3 lanegun.

Ingresoagarriko baimena senidea ingresatuta dagoen bitartean hartuko da; eta baimena amaitu aurretik alta ematen badiote, baimena egun horretan amaituko da.

Gurasotasun-lizentzia

Ama biologikoaren* jaiotzagatiko baimena; adopzioagatiko, adopzio aurreko zaintzagatiko, edo harreragatiko baimena, aldi baterakoa zein iraunkorra; eta guraso ez-biologikoaren haurraren jaiotzagatiko, adopzio aurreko zaintzagatiko, harreragatiko edo adopzioagatiko baimena.

18 asteko baimena hartzeko eskubidea izango dute. 2 aste gehiago haur gehigarri bakoitzeko edo 2 aste gehiago umea ezgaitua bada.

Baimen hauek intrasferibleak dira

| | Ama biologikoak | Ama biologiko, adoptatzaile, zaintzaile edo harrerakoa ez den gurasoak | Nola hartu behar dira asteak? |
|--------------------|-----------------|--|---|
| Nahitaezko zatia | 6 aste | 6 aste | Etenik gabe. Umea jaio eta jarraian |
| Borondatezko zatia | 10 aste | 10 aste | Etenik gabe edo zatika (salbuespenak daude) |
| Hobetutako zatia | 2 aste | 2 aste | Etenik gabe (salbuespen bat dago) |

NAHITAEZKO ZATIA (6 aste): haurra jaiotzen den egunetik edo adopzioa, adopzio aurreko zaintza edo harrera eratzeko erabaki judiziala ematen denetik gozatuko da; 6 asteak etenik gabe eta umea jaio den egunetik zenbatzen hasita.

Oharra: nahitaezko zatian jaioberria ospitaleratu beharko balitz, egun horiek luzatuko dira (ingresoaren iraupena 7 egun natural edo gehiagokoa bada, gehienez 13 astez).

BORONDATEZKO ZATIA (10 aste): bi modutan har daiteke, etenik gabe edo zatika.

Etenik gabe, aste guztiak jarraian. Aldez aurreko baldintzarik gabe.

Zatika hartzen bada, baldintzak honako hauek dira:

1. baldintza: guraso biek lan egin behar dute, edo paroa kobratzen egon.
2. baldintza: guraso biek errespetatu behar dute nahitaezko zatia; 6 aste.
3. baldintza: nahitaezko 6 asteak igarotakoan, gainerako asteak eskatu ahal izango dituzte nahi dutenean, betiere honako baldintza hauek betetzen badituzte:
 - a. 15 laneguneko aurreabisua. Lizentziaren epe bakoitza gozatu baino 15 lanegun lehenago egin behar da eskaera, edo eskaera bakarrean jakinarazi beharko da aste guztien antolaketa.
 - b. Baimena, nahitaez, asteka hartu beharko da; umeak 12 hilabete bete arte, gehienez ere.
 - c. Baimena zatika hartzen denean, eskaerarekin batera beste gurasoaren bizitza laborala aurkeztu beharko da (Hezkuntzako langilea ez denean).

HOBETUTAKO ZATIA (2 aste): guraso biek hobetutako asteak Gizarte Segurantzak ordaindutako asteen ondoren hartu beharko dute, jarraian.

Salbuespena: hobetutako zatia jarraian hartzeko derrigortasun horretatik salbuetsita daude kontratu amaiera jakin bat dutenak. Horiek hurrengo izendapenean edo kontratu berria hasitakoan, berehala, jarraituko dute baimenarekin, agortu arte (haurrak 12 hilabete bete aurretik). Betiere, 15 lanegun lehenagoko eskaera errespetatuz.

* **STEILAS**en legeak baliatutako *ama biologikoa* terminoa erabili badugu ere, errealitatea kontzeptuak jasotzen duen esanahia baino askoz ere zabalagoa dela ulertzen dugu.

Eszedentziak eta Zerbitzu bereziak


Taulan agertzen diren eszedentzia eta zerbitzu berezi guztiak, gutxienez 10 laneguneko aurreabisua exijitzen dute.

| Eszedentziak eta Zerbitzu bereziak | Art. | Nork | Iraunaldia | € | Eskaera |
|---|------|------|---|----|---------|
| Norberaren interesagatiko borondatezko eszedentzia | 141 | K | Eskatzeko gutxienez 2 urtez eman behar dira zerbitzuak sektore publikoan. Eszedentzia gutxienez 2 urterako da (berriz eskatzeko 3 urte igaro behar dira). | Ez | T |
| Borondatezko eszedentzia lanpostu- eta destino-erreserbaduna | 142 | K | Eskatzeko gutxienez 3 urtez eman behar dira zerbitzuak sektore publikoan. Eszedentzia 6 hilabete eta urtebete bitarteko izango da (berriz eskatzeko 3 urte igaro behar dira). | Ez | T |
| Senideak zaintzeko eszedentzia | 144 | KBO | Gehienez 3 urterako. Seme-alabak 3 urte egin arte edo 1. eta 2. mailako senideak zaintzeko, ez bada gai bere kabuz moldatzeko eta ez badu ordaindutako lanik egiten. Kontsultatu 11. orrialdea. | Ez | E |
| Zerbitzuak aldi baterako etetea seme-alaba adingabea zaintzeko (Suspensión transitoria) | 62 | KBO | Edozein unetan eskatu daiteke baina behin bakarrik eta gehienez umeak 3 urte bete arte luzatuko da. | Ez | T |
| Sektore publikoan zerbitzuak emateko borondatezko eszedentzia | 148 | K | Eskatzeko zerbitzu aktiboan egon behar da. Egoera hori eragin zuen zerbitzu-harremanak diraun bitarteko iraungo du. Lanpostuaren erreserba eskubiderik ez dago. Kargua uzteko datatik aurrera, 20 egun natural daude zerbitzu aktibora itzultzea eskatzeko. | Ez | T |
| Zerbitzu bereziak | 138 | K | Artikuluari jasotzen diren egoerak hartuko dira zerbitzu berezi gisa. Lanpostuaren erreserba eskubidea dago. Kargua uzten dutenetik aurrera, 20 egun natural izango dituzte zerbitzu aktibora itzultzeko. | Ez | T |

Zehaztasunak: 2010-VII-16ko EHAA (62.artikuluak) / 2022-XII-26ko EHAA (141-148 artikuluak).

E: eizu, T: tramitagune.

Odol-ahaidetasunaren organigrama



42. artikulua

Norberaren edo senitartekoren baten ezkontzagaritako lizentzia

Ezkontza: 20 egun (ezkontza-eguna barne)

1. + 2. mailako senideen ezkontzagaritik: egun bat (ezkontza-eguna) + 2 egun natural, 150 km baino urrunago bada.

Eszedentzia eta zerbitzuak aldi baterako etetea (umeak zaintzeko)

| | Eszedentzia (umeak zaintzeko) | Zerbitzuak aldi baterako etetea (<i>Suspensión transitoria</i>) |
|--------------------------------|---|---|
| Nork | Karrerako funtzionarioek, bakantedunek edo ordezko langileek*. Eskatu eta eten nahi beste aldiz, eta umeak hiru urte bete arte luzatuko da, gehienez ere. | Bitarteko funtzionarioek. Behin baino ezin da eskatu, eta umeak hiru urte bete arte luzatuko da, gehienez ere. |
| Lanpostuaren jabetza | Bai (gutxienez 10 laneguneko aurreabisua exijitzen dute). | Ez (lanpostua lortu eta jarraian jakinarazi behar da). Bai (lanpostura bertaratu behar da). |
| Lanpostua gorde | Bai. | Ez (lanpostuaren jabetza egin ez bada). Bai (ikasturte hasierako esleipenean hautatutakoa, lanpostu hutsa bada). |
| Gizarte Segurantzaren kotizatu | Bai, lehen hiru urteak (erretirorako). | Ez. |
| Antzintasuna | Bai (hirurtekoetarako). | Ez. |
| Puntuatu | Bai. | Bai (ordezkogaiak kudeatzeko zerrendaren baremorako, ez EPErako). <ul style="list-style-type: none"> Kontratuak iraun bitartean, dagokion puntuazioa lortuko da. Behin kontratua amaituta eta aldi baterako etetea moztu ezean, puntuatzen jarraituko da norberaren puntuen arabera proportzioan. |

* Ordezko langileak: baldin eta lanpostuaren jabetza egin badute. Eszedentzia lanpostuaren izendapena etetean amaitzen da.

Guraso-baimena (8 astekoa)

- Baimeneko 8 asteak, adingabeak 8 urte bete arte hartu ahal izango dira (ez dira urtekoak).
- Haurrak edo etxean hartutako adingabeak zaintzeko.
- Baimena zatika hartzekotan, gutxienez asteka hartu beharko da.
- **Eskaera gutxienez 15 lanegun lehenago** egin behar da.
- Eskaeran familia-liburua edo haurra Erregistro Zibilean inskribatu izanaren ziurtagiria zein jaiotza ziurtagiria erantsi beharko da.

Gurasotasun-lizentzia eta gero, zer?

Edoskitzea

Lanera bueltatzeko baldintzarekin bakarrik lortzen da edoskitze metatua. Ezin da besterendu, eskubide indibiduala da; bi gurasoen eskubidea.

Jaiotako haur bakoitzeko egunean ordu bat, urtebete izan arte. Proportzionalki luzatuko da erditze, adopzio edo harrera anizkoitza denean.

2 mota

Metatua*

(Gurasotasun-lizentziaren jarraian hartu behar da)

- > Funtzionarioek.
- > Praktiketako funtzionarioek.
- > Bakantedunek.
- > Amaiera-data duten ordezkapen luzeak dituzten ordezkoek**.

Lanaldi osoarekin, 24 lanegun.

Lanaldi murriztuetan, edoskitze metatuko lanegun kopuruak murriztu dituzte, 2022ko Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko sententzia batean oinarrituz.

Oharra: urte natural batean, gurasotasun-lizentziako 18 asteak kenduz gero, 144 lanegun daude. Lanegun batek 6 ordu ditu jardunaldi osoan.


Metatu gabea

- > Hezkuntzako langile guztiek har dezakete.
- > Egunean ordubete har daiteke, edo ordu erdiko bi zati (betiere lehen edo azken orduetan).
- > Lizentzia osoa bukatu eta gero edo nahitaezko zatia amaitutakoan har daiteke.
- > Ikastetxeko zuzendaritza-taldearekin adostu behar da.


* Kalkulua ondo egin ahal izateko, edoskitze metatua eskatzerakoan, eskatzaileak nahitaez jakinarazi beharko ditu umek 12 hilabete bete arte hartuko dituen lizentzia, baimen, hartu gabeko opor eta eszedentziak.

** Ordezkapenen adibideak: jubilazio baten ordezkapena, IRALE bat egiten dagoen irakaslea ordezkatzeara, (nahiz eta administrazioak ukatu)

Edoskitze metatua eskatzeko asmoa duenak, gurasotasuneko asteen antolaketarekin batera zehaztea komeni da.




Ordezkoak



Suerta daitekeen kasuistika, adibideak:

- > Irailaren 1ean gurasotasun-lizentzian/edoskitzean/arriskuko haurdunaldiगतिक बजाने एगो बजार, लुराल्दे ordezkaritzan jakinarazi behar duzu ikasturte hasierako esleipen-prozesurako eskabideak aurkezteko epea hasi baino bost lanegun lehenago; hau da, Hezigunean lanpostuak eskatzeko epea baino 5 lanegun lehenago (orokorrean ekaineko bigarren hamabostaldian).
- > Kontratupean EZ egonda haurra jaiotzen bada, ordeztagunean lan egoera aldatu egin behar da, JUSTIFIKATU GABEKO UKO EGITEAri dagokion laukitxoan klik eginez. Ondoren, familia-liburua aurkeztu behar da lurren ordezkaritzan eta JUSTIFIKATUTAKO UKO EGITEA egoerara pasatuko da.
- > Gurasotasun-lizentziak iraun bitartean, lanposturen bat eskuratuz gero, ez da ordezkapena egin behar eta kontratuari dagokion puntuak jasoko dira.

Haurdunaldia



Erditzeko unea

16 asteko baimena kobratzeko eskubidea izateko egoerak:

- Haurra jaio den egunean bajaran eta prestazioa jasotzen egon (kontratua amaituta).
- Haurra jaio den egunean langabezian egon.

18 (16+2) asteko baimena kobratzeko eskubidea izateko egoerak:

- Haurra jaio den egunean lanean egotea.
- Haurra jaio den egunean bajaran egotea (kontratupean).

Ordezkoen hurrenkera nola ulertu (Ordezlagunean kontsultagai)

Hautatutako lurralde, lanaldi eta gainerako informazioaren inguruko xehetasunak

Ordezlagunean norberaren profilean "nire posizioa zerrendetan" sakatzean, hurrengo agertuko da:

Non egin nahi dituzu ordezkapenak?

Araba: bai (Lanaldia: osoa eta murriztua) Gipuzkoa: bai (Lanaldia: osoa eta murriztua)

Bizkaia: ez (Lanaldia: zehaztu gabe)

Informazio egiaztatua*

Hizkuntza-eskakizuna: 2. HE Zeinu-mintzaira: 0 maila Ingelesa: ez Frantsesa: ez

Eskola emateari buruzko informazioa**

Hizkuntza-eskakizuna: 2. HE (edo txikiagoa) Ingelesa: ez Frantsesa: ez

* Tituluen bidez egiaztatu duzun informazioa da. ** Zerrendetan izena ematean egin duzun hautaketa da. Informazioa sortu den eguna eta ordua: 2022/09/29 – 08:04:23.

Hurrenkeraren inguruko xehetasunak

Norbera dagoen ikasgaien zerrendan, "kontsultatu xehetasunak" atalean sakatuz gero, zerrenda horren hurrenkera ikus daiteke.

Birbaremazioan egindako aldaketak, Ordezlagunean islatzen dira.

| Maila-kodea | Ikasgaia | Ikasgai-kodea |
|-------------|--|---------------|
| 20 | Curriculum desberdinak eratzekoa. Hizkuntza-gizart. | 0986 |

Araba • Ordena-zenbakia: 00929

| Lanpostuaren lanaldi-mota | Plazaren hizkuntza-eskakizuna (HE) | | |
|---------------------------|------------------------------------|------|------|
| | PL 0 | PL 1 | PL 2 |
| Osoa | 57 | 57 | 57 |
| Murriztua | 37 | 37 | 36 |

Gipuzkoa • Ordena-zenbakia: 01108


| Lanpostuaren lanaldi-mota | Plazaren hizkuntza-eskakizuna (HE) | | |
|---------------------------|------------------------------------|------|------|
| | PL 0 | PL 1 | PL 2 |
| Osoa | 75 | 73 | 72 |
| Murriztua | 53 | 52 | 50 |

Nola irakurri?

- Tauletan jasotzen diren zenbakiak norbera baino lehenago ordezkapenak egiteko prest dauden hautagaien kopurua adierazten dute.
- Ordena-zenbakia: hautagaiak zerrenda horretan duen postua.
- PL (perfil lingüístico). - HE (hizkuntza-eskakizuna).

Gogoratu: parte-hartzea borondatezkoa da eta nahitaez esleitutako lanpostuak eman daitezke.

Lan-istripuak, nola jokatu



Ikastetxeko Zuzendaritzak
beti bete behar du jakinarazpena eta Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzura zein Nomina Sailera bidali

Zer da lan-istripua?

Langileak, lanean ari dela edo lanaren ondorioz, jasan dezakeen edozein gorputz-lesio.

Lan-istripuen barruan, "in itinere"

Istriputat joko da langileak lantokirako joan-etorrietan jasan dezakeena.

Zer da intzidentzia?

Edozein jardueratan aritzean eman daitekeen edozein egoera, lesiorik eragin ez, baina lesioak eragin ditzakeena. (Segurtasuneko laguntzaileari komunikatu eta erregistratu behar dira).

Gaixotasun profesionala

Irakasleon kasuan, noduluak besterik ez.

Lan-istripua, baja eragiten duena

Lan-istripua baten ondorioz, baja hartu behar izan bada, lansariaren % 100 kobratuko da.

Lotura interesgarriak

Irakasleen lan akordio eta bestelako dokumentuak

Lan akordio
orokorra
185/2010 dekretua



Mahai Sektorialeko
akordioa
(2018-05-14)



Plantilla esleitzeko
irizpideen akordioa
(2022-05-26)



Ikasturte hasierako
ebazpenak



Lizentziak
eta baimenak



Ordezkoen araudia

Ordezkoen araudia
(2023-11-18ra arte)



Titulazioen eta
espezialitateen taula
(III. eranskina)
(2023-11-18ra arte)



Araukak



Zerrenden osaketa eta kudeaketa

Zerrenda gehienak
irekita!



Zerrendetan on-line
izena emateko gida



Ohar garrantzitsuak



Nominak: 2024

Nominaren kontzeptuak lau multzotan sailka ditzakegu, hobeto ulertzeko:

- A.** Denok kobratzen ditugun kontzeptuen kodeak: 1000, 2004, 2103 eta 2108.
- B.** Antzintasun-kodeak: 1020, 1027, 2130, 2135 eta 2140.
- C.** Kargu-kodeak: 2145 (mota ezberdinak daude kode honekin).
- D.** Maisu-maistren gehigarrienak (DBH/EPA): 2640 eta 2146 kodeak.

Sortzapenak

| Nominari dagokiona (eurotan eta hilabetero) | | | |
|---|----------------|--|----------------|
| Kodeak eta kontzeptuak | Maisu-maistrak | LHko Sektore Bereziako irak. | BH/HEOko irak. |
| 1000 Soldata | | 1147,35 | 1326,90 |
| 1020 Antzintasuna (hirurtekoak) | | 41,65 | 51,07 |
| 1027 Oinarrizko aldea (hirurtekoak) | | 8,79 | 10,02 |
| 2004 Lanpostu-mailako osagarria | 670,71 | 841,81 | |
| 2103 Berariazko Osagarria | 673,65 | 892,01 | 762,65 |
| 2108 CE Kapitalizazioa | | 302,98 (denok kobratzen dugu) | |
| 2130 CE 1er grado esp. Ded. | | 92,60 (6 urteko zerbitzuak izanez gero) | |
| 2135 CE 4º grado esp. Ded. | | 55,23 (24 urteko zerbitzuak izanez gero) | |
| 2140 CE 5º grado esp. Ded. | | 45,78 (30 urteko zerbitzuak izanez gero) | |
| 2145 CE Adic. Cargo-Tutorea | | 68,24 | |
| 2145 CE Adic. Cargo-Koord. | 62,02 | | |
| 2145 CE Adic. Cargo-Mintegib. | 62,17 | 61,49 | 89,09 |
| 2145 CE Adic. C. Zuzendaritza | | (Gela, ikasle edo irakasle kopuruaren arabera) | |
| 2640 CD Adic. Maisu-Maistra DBH | 171,10 | | |
| 2146 CD Adic. Maisu-Maistra EPA | 76,67 | | |

Azalpenak GSKo kotizazio-oinarrien atalean

- Siglak: **LI** Lan-istripua
LG Lanbide-gaixotasuna
AT Accidente laboral
EP Enfermedad profesional

Atxikipenak (deskontatzen dutena):

Denok: 401 PFEZren gaineko atxikipena (IRPF): sortzapenen ehuneko bat da. Urtean behin, langileak urte horretarako ehunekoa igotzeko eska dezake.

GSKoek: 350 Trab. cont. comunes: erretirorako eta osasun-asistentziarako kotizazioak. Sarrera gordinen % 4,7.
370 Trab. desempleo (bitarteko funtzionarioek soilik): sarrera gordinen % 1,55.
380 Trab. formac. profesional: sarrera gordinen % 0,1.

MUFACEkoek: 9360 Eskubide pasiboak: erretirorako kotizazioa.
9350 MUFACE: osasun-asistentziarako eta prestazioetarako kotizazioa.

Aparteko ordainsarrietan (ekainean eta abenduan):

- Oinarrizko aldea (1027) ez da kobratzen.
- Oinarrizko soldataren (1000) eta hirurtekoen (1020) % 72 (A1 taldekoek) eta % 61 (A2 taldekoek) jasotzen da.
- Beste kontzeptuak berdin kobratzen dira.



www.steilas.eus

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus



Irakasleen eskuliburua
EAEko irakaskuntza publikoa
2024-2025
(2024ko urrian eguneratua*)

* Kontuan hartu lan-baldintzetan
aldaketak egon daitezkeela